


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# Entzundako hizkuntzaren inputa aintzat hartuta, 2-3 urte bitarteko haur baten hizkuntza jabekuntza euskaran eta gaztelanian Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda (KGNZ) baliatuz

---

**Ainhoa Barandiaran Noguera (Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/ EHU)**

**Eukal Ikasketak. 2016-2017 ikasturtea**

**Graduko jakintza-arloa: Psikolinguistika**

**Zuzendaria: Mari Jose Ezeizabarrena Segurola**

## Aurkibidea

Laburpena .....	2
1. Sarrera .....	4
2. L-ren ikerketa longitudinala .....	9
2.1. Parte-hartzailea eta inguru soziolinguistikoa .....	9
2.2. Tresna .....	11
2.3. Datu-bilketaren antolaketa .....	14
2.4. Aurreikuspenak .....	17
3. Emaitzak .....	18
3.1. <i>Hitz zerrenda eta Vocabulario</i> azpiatala .....	18
3.2. <i>Haurrak hitzak nola ekoizten dituen eta Usos del lenguaje</i> azpiatala .....	20
3.3. <i>Hitz amaierak eta Terminaciones de las palabras</i> azpiatala .....	22
3.4. <i>Adizkiak eta Verbos difíciles</i> azpiatala .....	23
3.5. <i>Esaldien konplexutasuna eta Complejidad morfosintáctica</i> azpiatala .....	25
4. Eztabaida .....	27
5. Ondorioak .....	30
6. Bibliografia .....	31

## **Laburpena:**

Lan honetan, entzundako hizkuntzaren inputa (kantitatea) aintzat hartuta, 2-3 urte bitarteko jaiotzetiko elebidun baten komunikazio garapen goiztiarra aztertu da, euskaran eta gaztelanian. Haurraren komunikazio garapen goiztiarra aztertzeko gurasoek emandako informazioetan oinarrituta dagoen *MacArthur-Bates* tresnaren bitartez burutu da datu-bilketa. Euskararako egokitzapena (Barreña, Garcia, Ezeizabarrena, Arratibel, Olano, Barnes, Petuya eta Colina, 2008) eta gaztelaniarako egokitzapena (Lopez-Ornat, Gallego, Gallo, Karaousou, Mariscal eta Martinez, 2005) baliatu dira datuak biltzeko. Bi egokitzapen hauez gain, KGNZ-III (Garcia, Barreña, Ezeizabarrena, Almgren, Arratibel eta Barnes, 2013) ere baliatu da azken datu bilketan datuak biltzeko.

Haurraren inguruan egiten diren hizkuntzek eragina dute haurraren hizkuntzaren garapenean (Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2008), eta hortaz, haur elebidunen hizkuntza jabekuntza aztertzerakoan, aintzat hartzekoa da hizkuntza bakoitzean haurrak entzuten duen kantitatea. Haurraren amak emandako informazioetan oinarrituta, haurrak entzuten duenaren %75a euskarazkoa eta %25a gaztelaniazkoa dela ondorioztatu da. Gurasoak euskaraz mintzatzen zaizkio haurrari, eta amona gaztelaniaz. Gurasoek beren artean gaztelaniaz hitz egiten dute.

Haurraren komunikazio garapen goiztiarra aztertzerakoan, hiztegia ez ezik gramatika ere aztertu da (hitzak nola esaten dituen, hitz-amaierak, adizkiak eta esaldien konplexutasuna) eta luzaroko datu-bilketa eraman da aurrera. Haurrak entzuten duen hizkuntzaren kantitatea aintzat hartuta, honakoa da lanaren helburua: batetik, haurraren euskarako eta gaztelaniako datuak alderatu dira, bi hizkuntzetan orekatua/ desorekatua den jakin nahi baita. Bestetik, haurraren datuak “datu normatibo”ekin alderatu dira (bere adinkideen datuekin), adinkide dituen haurrekiko nolako hizkuntza-jabekuntza erakusten duen ere jakin nahi baita.

Inputaren ezaugarrietan oinarrituta, batetik, haurrak gehiago entzuten duen hizkuntzan garapen goiztiarragoa, eta gutxien entzuten duen hizkuntzan garapen motelagoa erakustea espero da. Bi hizkuntzetan asimetria erakustea espero da. Bestetik, euskaran euskaldun elebkarren pare egotea eta gaztelanian gaztelaniadun elebkarrek baino garapen motelagoa erakustea aurreikusi zitekeen.

Inputaren ezaugarrietan oinarrituta egindako aurreikuspenekin bat datozen eta ez datozen emaitzak atera dira. Batetik, bi hizkuntzen arteko oreka/ desorekari dagokionean, aurreikuspenak bete dira. Euskarari, gehiago entzuten duen hizkuntzan, gaztelanian, gutxiago entzuten duen hizkuntzan, baino garapen goiztiarra erakusten du haurrak. Honela, datuek bi hizkuntzen garapena asimetrikoa dela erakusten dute. Bestetik, haurraren datuak “datu normatibo”ekin parekatzerakoan, hein handi batean aurreikuspenak bete badira ere, ez dira guztiz bete. Espero bezala, euskarako datuek euskaldun elebarraren pare jartzen dute haurra, eta gaztelaniako datuek gaztelaniadun elebarraren azpitik. Hala ere, entzundakoaren kantitatea aintzat hartuta, espero baino garapen motelagoa erakusten du haurrak gaztelanian.

Lan honetan, entzundako hizkuntzaren kantitateak hizkuntza jabekuntza elebidunean eragina duela ikusi da. Hala ere, haurrak gaztelania gazteleradun elebarrak baino motelago garatzea espero bazen ere, emaitzek erakusten dutena baino garapen aurreratuagoa aurreikusi zitekeen hiztegiaren eta gramatikaren jabekuntzan, betiere entzundakoaren kantitatea aintzat hartuta.

Haurrek entzuten duten inguruko hizkuntza guztiak ez du eragin bera haurren hizkuntza jabekuntzan (Ezeizabarrena eta beste, in press). Honela, hizkuntza bakoitzean entzundakoaren kantitateak eragina izateaz gain, haurrari berari egiten zaion hizkuntzak berebiziko garrantzia duela ikusi da, hots, ez dela parekoa gurasoek haurrari euskaraz egitea eta haurrak gurasoen elkarrizketak gaztelaniaz entzutea. Inguruko hizkuntzek eragina dute haurraren, baina entzuten den guztiak ez du modu berean eragiten. Hizkuntzaren “esposizio zuzenak” eta “zeharkako esposizioak” ez dute eragin bera haurraren hizkuntzaren jabekuntza goiztiarrean.

## 1. Sarrera

Lan honetan 2-3 urte bitarteko jaiotzetiko elebiduna den haur baten hizkuntza jabekuntza edo komunikazio garapena aztertu da, entzundako bi hizkuntzen kantitatea aintzat hartuta. Haurra elebiduna da, txikitatik euskara eta gaztelania entzun baititu gurasoen ahotik. Entzundakoaren inputa (entzundako hizkuntza-kantitatea) kontuan hartuta, haurraren bi hizkuntzen hizkuntza jabekuntza goiztiarra nolakoa den ikusi nahi izan da.

Haur baten hizkuntza jabekuntza elebakarra, elebiduna zein eleanitza izan daiteke. Hizkuntza jabekuntza elebiduna familian bi hizkuntza entzun dituzten haurrek duten hizkuntza jabekuntza da (Barreña eta Almgren, 2000). Lan honetan elebitasunaren definizio ezberdinak ikus daitezkeela azaltzen dute autoreek eta beraien ustez elebitasunaren kontzeptua ezin daiteke bakarra izan, izan ere, haurrek elebitasunera heltzeko jarraitzen dituzten bideak ugari dira. Esaterako, haur batzuek familian eskuratzen dute elebitasuna, eta beste batzuek, eskolan.

De Houwer (2009) lanean haur txiki elebidunak bi taldetan bereizten dira. Alde batetik, “jaiotzetiko elebidunak” daude eta bestetik, “ondo-ondoko elebidunak”. Izenek iradokitzen duten moduan, jaiotzetiko elebidunak jaiotzetatik bi hizkuntza entzun dituztenak dira eta ondo-ondoko elebidunak bigarren hizkuntza goiztiarra dutenak, baina jaiotzetatik bi hizkuntza entzun ez dituztenak edota bi hizkuntzak etxean ikasi ez dituztenak.

Hizkuntza jabekuntza elebiduna dela ziurtatzeko, Barreñak eta Almgrenek hiru aldagai proposatzen dituzte. Lehenik, haurrak hizkuntzak noiztik entzuten dituen hartu behar da kontuan. Adibidez, McLaughlin-entzat (1978) nahikoa da bi hizkuntzak hiru urte izaterako entzutea “haurra elebidun”tzat hartzeko. Aldiz, Padilla & Lindholm-entzat (1978) bi hizkuntzak jaiotzetatik entzun behar ditu haurrak “jabekuntza elebiduna” izan dadin. De Houwer-en aburuz (1978) nahikoa izango da hilabetea izan aurretik bi hizkuntzak entzutea haurrak “jabekuntza elebiduna” izan dezan. Barreña eta Almgrenek dioskute nazioarteko ikerlari gehienek aburuz hizkuntza baten jabekuntza elebiduntzat hartzeko hizkuntza biak oso txikitatik entzun eta ikasi behar dituztela haurrek. Bigarrenik, entzundakoaren kantitatea aintzat hartu behar da hizkuntza jabekuntza elebiduntzat hartzeko. Haurraren hizkuntza jabekuntza elebiduna izan dadin,

nolabaiteko hizkuntza bien arteko oreka beharrezkoa da. Hirugarrenik, entzundako hizkuntzaren edo inputaren bereizketari erreparatu behar zaio. Ikerlari gehienek garrantzi handia ematen diote “pertsona bat hizkuntza bat” (Ronjat, 1913) leloari. Hau da, lagun bakoitzarekin beti hizkuntza bera erabiltzea, eta ondorioz, haurrak bi hizkuntzak bereizita entzutea. Halere, Barreña eta Almgrenek gogora ekartzen dute ez dela ahantzi behar gehienetan haurrak laster batean jabetzen direla gurasoek hizkuntza bat darabiltela elkarrekin ari direnean.

Haur elebidunek hizkuntzak bereizteko duten gaitasunaren gainean bi iritzi daude. Alde batetik, haur elebidunen datuak aztertuta Volterra eta Taeschner (1978) eta Redlinger eta Park (1980) lanetan haur elebidunek gramatika eta hiztegi bakarra dituztela ondorioztatzen da, honela ikerlari hauen aburuz haur elebidunek ez dituzte bi hizkuntzak hasiera-hasieratik bereizten. Hala ere, onartzen dute hiru urte ingururekin haurrek bi hizkuntzak bereizten dituztela. Bestalde, ikertzaile askok aurkako iritzia dute, De Houwer (1995), Genesse eta beste (1995), Deuchar eta Quay (2000), Bel (2001) edota Genesse (2003) lanetan ikus daitekeen bezala. Azken ikerlari hauen aburuz, haurrak bi hizkuntzak bereizteko gai dira hasieratik. Bi hizkuntzak aldi berean eta bereizita entzunez gero, bereizita garatzen ditu haurrak bi hizkuntzak garapenaren hasiera-hasieratik (Barreña eta beste, 2008).

Jaiotzetiko elebidunek bi hizkuntza entzuteak ez du esan nahi bi hizkuntzetan maila bera izango dutenik, ezta biak menperatuko dituztenik ere (De Houwer, 2009). Ezberdindu egin behar da jabekuntza elebiduna izatea eta hizkuntza bi menderatzea. Izan ere, haur baten hizkuntza jabekuntza elebidunak ez dakar berarekin etorkizunean nahi eta ez bi hizkuntzak erabat menderatzea edota bietan erosotasunez hitz egitea (Barreña eta Almgren, 2000).

De Houwerrek ere azaltzen duen moduan, posible da jaiotzetiko haur elebidun batek txikitatik bi hizkuntza entzun arren biak hitz egitera ez iristea, biak ulertu arren. Jaiotzatik bi hizkuntza entzun, baina hizkuntza bakarra hitz egitera iritsi direnei, “elebidun pasiboak” deitzen zaie, haurtzaroan bi hizkuntza entzun badituzte ere eta biak ulertzen badituzte ere, bakarra hitz egitera iritsi direlako. Batzuetan pentsatu izan da jaiotzetiko elebidunek bi hizkuntzak maila berdinean menperatzen dituztela, baina ez da beti horrela izaten.

De Houwerrek diosku haurrak jaiotzatik bi hizkuntza entzun baditu, normalena haurrak bi hizkuntza horiek familian entzun izana dela. Sarritan, jaiotzatik elebidun diren haurren gurasoak hizkuntza ezberdinetako hiztunak izaten dira, eta hortaz, haurrari bi hizkuntzatan hitz egiten diote, guraso bakoitzak batean. Bada De Houwerrek azaltzen duen etxeko beste egoera bat. Kasu honetan, gurasoak elebidunak dira eta bi hizkuntza hitz egiten dituzte. Horrela, euren artean hizkuntza batean egin, baina haurra jaiotakoan haurrari dakiten beste hizkuntzan hitz egitea erabakitzen dute gurasoek. Hortaz, etxean bi hizkuntza hitz egiten dituzte familia hauetan. Horrela, haurra jaio aurretik bikote elebakarra osatzen bazuten ere, familia izandakoan familia elebidun bilakatzen dira. Hau gertatzeko arrazoiak anitzak izan daitezke, hala nola, gurasoek hitz egiten duten hizkuntza bakarraz gain haurrari beste hizkuntza bat erakutsi nahi izatea. Euskal Herrian ere badira horrelako egoerak. Badira gurasoak, non beraien arteko eguneroko bizitza gaztelaniaz egiten duten arren, haurra jaiotakoan haurrari euskaraz hitz egiteko hautua egiten duten.

Aldi-bereko haur elebidun batzuek bi hizkuntzak orekatuta entzunda jaiotzatik garapen paraleloa erakutsi dezakete bi hizkuntzetan, hau da, bi hizkuntzak elebakarrek bezala garatu ditzakete. Hala ere, ez dira gutxi bi hizkuntzak orekatuta entzunda ere bi hizkuntzetan erritmo ezberdina erakusten duten haur elebidun goiztiarrak. Haur hauek “hizkuntza indartsu” bat eta “hizkuntza ahul” bat dutela esan izan da (Ezeizabarrena, Garcia, Almgren eta Barreña, in press).

Haurraren inguruan egiten diren hizkuntzek eragina dute haurraren hizkuntzaren garapenean (Barreña, Ezeizabarrena eta Garcia, 2008). Barreña eta beste (2008) lanak euskararen presentzia-mailak, hots, haurrak euskara entzuten pasatzen duen denborak eragina duela haurraren hizkuntza garapenean erakutsi du, eta orokorrean, haurraren inguruan egiten diren hizkuntzek eragina dutela haurraren hizkuntza garapenean. Honenbestez, ohikoa da haurrak gehiago entzuten duen hizkuntzan garapen bizkorragoa erakustea, hiztegi aberatsagoa edota gramatika garatuagoa erakutsiz.

Barreña eta beste (2008) lanean jasotako inputak elebitasunari eragiten diola baieztatzen da. Hau kontuan hartuta, euskara entzuten duten haur elebidunak hiru multzotan sailkatzen dituzte entzundako hizkuntzaren arabera aldagaia kontuan hartuz. Lehenengo multzoan, “euskaldun elebakarrak” deitutakoak daude

(entzundakoaren >%90 euskaraz izan dutenena). Bigarren multzoan, elebidunak izanik “euskara nagusidun elebidun” deitutakoak daude (entzundakoaren %60tik %90era euskarazkoa izan dutenena) eta, azkenik, hirugarren multzoan, “erdara nagusidun elebidun” deitutakoak daude (euskara, entzundakoaren %60 baino gutxiago izan dutenena). *Entzundako hizkuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean* (2008) lanean erdara nagusi duten elebidunek beste bi taldetakoek baino emaitza apalagoak erakusten dituzte euskararen garapenari dagokionean, salbuespenik gabe. Euskara nagusi dutenek (elebatarrek zein elebidunek) erdara nagusi duten elebidunen taldeari alde esanguratsua ateratzen diote. Euskaldun elebatarren artean eta elebidun izanik euskara nagusizat dutenen artean, aldiz, ez da alde esanguratsurik ikusten.

Haurrek entzuten duten inguruko hizkuntza guztiak ez du eragin bera haurren hizkuntza jabekuntzan (Ezeizabarrena eta beste, in press). Entzundako hizkuntzaren “esposizio zuzena” eta “zeharkako esposizioa” bereizi behar dira. “Esposizio zuzena” haurrari zuzenean egiten zaion hizkuntzarena izango da. “Zeharkako esposizioa” haurrari zuzenean egiten ez zaiona izango da, hau da, telebistan entzuten duena edota bere ingurukoek egiten duten hizkuntza, baina ez berari zuzenean egiten zaiona.

Lana burutzeko gurasoen informazioetan oinarritzen den *MacArthur-Bates* tresna baliatu da. Tresnak haurrak entzundako hizkuntzaren inguruko informazioa jasotzea ahalbidetzen du. Tresnaren helburu nagusia haurren hizkuntza eta komunikazio garapen goiztiarra neurtzea da, haurren hizkuntzarako gaitasuna neurtzen duen aldetik. Euskararako egokitzapena eta gaztelaniarako egokitzapena baliatu dira lan honetan. *MacArthur-Bates* tresnan gurasoak dira haurraren garapenaren berriemaileak.

Bi datu-bilketa metodo baliatu daitezke haurren hizkuntza jabekuntza aztertzerakoan: “metodo transbertsala” eta “luzaroko metodoa”. Metodo transbertsalaren bitartez haur askoren datu-bilketa burutu daiteke, metodoak haur askoren datuak biltzeko aukera ematen baitu. Modu honetan, haur kopuru handi samar baten datuak biltzen direnez, orokorpenak egiteko aukera izaten da. Luzaroko metodoa, aldiz, haur bakar baten datu-bilketa burutzeko baliatzen da eta ikerketa denboran luzatzen da metodo transbertsalarekin ez bezala. Luzaroko metodoa subjektuaren edo parte hartzailearen menpekota da, izan ere, ikerketak irauten duen denbora tartean



subjektuak aukera izan behar du ikerketan parte hartzeko. Luzaroko metodoak badu muga bat, egiazki, haur bakar baten datuak biltzen direnez, ez dago orokorpenak egiteko aukerarik. Bi metodoen ahulguneak saihestearren autore batzuek bien arteko konbinaketa bat proposatu izan dute. Bien arteko konbinaketa hau metodo sekuentziala izenaz ezagutzen da (Serra, 2000).

*MacArthur-Bates* tresna bera eta gainerako hizkuntzetan egin diren egokitzapenak metodo transbertsalaren bitartez burututakoak dira, haur askoren datu bilketa eraman baitute aurrera adituek, ondoren orokorpenak egin ahal izateko. Lan honetan, *MacArthur-Bates* tresna erabilia datu-bilketarako luzaroko metodoa baliatu da, haur bakar baten datuak bildu baitira lau hilabeteren buruan.

Ingurune euskalduneko haur elebidun baten datuak eskuratu nahi ziren, bi hizkuntzen garapena ikusteaz gain, gaztelania euskara baino gutxiago entzunda bi hizkuntzen arteko oreka/ desoreka nolakoa den ikusteko. Horrela, Ordiziako haur baten hizkuntzazko informazioak baliatuz lana burutzea erabaki zen.

Haurrak entzuten dituen hizkuntzek haurraren hizkuntzen garapenean eragina dutela aintzat hartzen da lan honetan. Modu honetan, haur baten euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza jabekuntza aztertu nahi da, entzun dituen hizkuntzek uste den bezala eragina dutela frogatzeko asmoarekin. Gehien entzuten duen hizkuntzan, euskararen, garapen bizkorragoa erakustea eta gutxien entzuten duen hizkuntzan, gaztelanian, garapen motelagoa erakustea espero da, eta lanaren helburua hau honela den ikustea da, hots, entzundako hizkuntzaren kantitateak haurraren hizkuntza garapenean eragina duen ikustea da helburua.

Bi alderaketa egingo dira horretarako. Batetik, haurrak euskararen eta gaztelanian, bi hizkuntzetan, duen hizkuntza jabekuntza alderatuko da, jabekuntza orekatua ala desorekatua den ikusteko. Bestetik, haurraren euskarako datuak euskarako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin eta gaztelaniako datuak gaztelaniako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuko dira.

Haurrak bi hizkuntzak berdindatu, ala hizkuntza bat bestea baino gehiago garatu du? Gehiago entzun duen hizkuntzan garapen goiztiarragoa erakusten al du

haurrak? Ikerketa enpirikoa eraman da aurrera haurren hizkuntza jabekuntza nolakoa den jakiteko.

## **2. L-ren ikerketa longitudinala**

### **2.1. Parte-hartzailea eta inguru soziolinguistikoa**

Haurrari Laia ezizenaz deituko zaio hemendik aurrera. Ezizena haurren datu pertsonalak babesteko asmoarekin baliatuko da, anonimotasuna gordetzeko. Haurren gurasoen baimena eta Batzorde Etikoaren baimena eskuratu dira lana egin ahal izateko.

Datu bilketa hasterako Laiak 2;8ko adina zuen eta bukatzerako 3;0ko adina, hortaz, datu bilketa lau hilabeteren buruan egin da.

Laia haur elebiduna da, bi hizkuntzak entzuten baititu etxean egunerokotasunean. Hala ere, zalantzak badira jaiotzetiko elebiduna den ala ondoz ondoko elebiduna den erabakitzerako garaian. Ondoz ondoko elebiduna etxean hizkuntza bakarra entzun duen eta ondoren bigarren hizkuntza goiz ikasi duen haurra litzateke eta jaiotzetiko elebiduna txikitatik etxean bi hizkuntza entzun dituen. Haur bat elebiduna denean eta jaiotzetiko elebiduna ala ondoz ondoko elebiduna dela erabaki behar denean, garrantzitsua da haurren datuak kontuan hartzea. Modu honetan, perfil soziolinguistikoari erreparatu behar zaio, etxeko sozializazioari batez ere.

Etxeko sozializazioari dagokionean, etxeko hizkuntzak bi dira: euskara eta gaztelania. Gurasoak elebidunak dira, ondoz ondoko elebidunak. Batak etxean euskara bakarrik jaso zuen bere haurtzaroan eta ondoren eskolatze garaian ikasi zuen gaztelania. Besteak, aldiz, etxean gaztelania jaso zuen eta ondoren nerabezaroan hasi zen euskararekin. Hortaz, gurasoek badakite euskaraz hitz egiten eta haurrari euskaraz hitz egiten diote, bai amak eta bai aitak. Hau honela izanda ere, gurasoek beren artean gaztelaniaz hitz egiten dute, eta hortaz, haurrak etxean bi hizkuntza entzuten ditu jaiotzetik, euskara eta gaztelania.

Haurren elebitasun motari dagokionean, bi modutan pentsatu daiteke. Batetik, haurrari gurasoek hizkuntza bakarrean egiten diotenez, pentsatu daiteke haurra ondoz ondoko elebiduna dela. Bestetik, kontuan hartzen bada gurasoek haurrari euskaraz hitz egin arren haurrak etxean egunerokotasunean bi hizkuntza entzuten dituela, jaiotzetiko

elebiduna dela pentsatu daiteke. Lan honetan Laia jaiotzetiko elebiduntzat hartuko da, bi hizkuntzak jaiotzatik entzun baititu etxean.

Etxean euskara eta gaztelania entzuten dituela aintzat hartzea garrantzitsua da, baina etxeko sozializazioarekin ingurune soziolinguistikoa ere kontuan hartzea komeni da. Haurra ingurune euskaldunekoa (Ordizia) da eta euskarak presentzia esanguratsua du bertan. Hala ere, gaztelaniak ere badu indarra haurren inguru soziolinguistikoan. Ordizia ez da euskara hutsean bizi den herria eta honek hizkuntza erabileran garrantzia du. Egia da haurra txikia dela oraindik, baina kalean entzuten duen hizkuntza garrantzitsua izan daiteke haurren hizkuntza jabekuntzan. Etxean gaztelania eta euskara entzuten dituen moduan, kalean ere gaztelania eta euskara, biak, entzuten ditu. Ordiziako datu soziolinguistikoei dagokienean, kale-erabilera eta hizkuntza-gaitasunaren datuak ekarri dira lan honetara.

Ordiziako hizkuntza-gaitasunari dagokionean eta “Ordiziako euskara atala”ko 2011ko datuak aintzat hartuta, elebidunak %57’2, elebidun hartzailak %20’96 eta erdaldun elebakarrak %21’81 dira. Kaleko erabilerari dagokionean, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%57), gero gazteak (%44’10), gero helduak (%30’10) eta gero adinekoak (%24’8). Oro har, datu hauen arabera, badirudi zenbat eta gazteago, orduan eta euskararen erabilera handiagoa dela. Kale-erabileraren datuek iradokitzen dute haurrak bakarrik daudenean nabarmen gehiago hitz egiten dutela euskaraz (%62’8) eta euskara gutxiago entzuten da helduen artean, batez ere haurrik inguruan ez denean (%24’6). Aipatzekoa da, iturri honen arabera, Ordiziako erdigunean duela 18 urte egindako neurketen arabera %23’4koa zela euskararen erabilera, eta gaur egungo erdigunean egindako neurketek euskararen erabilera %44’1ekoa dela iradokitzen dute (Ordiziako Euskara Atala, 2010).

*MacArthur-Bates* tresnak hurrek entzundako hizkuntzen inguruko datuak biltzea ahalbidetzen du. Horretarako, haurrak zaintzaile (ama, aita, irakaslea, amona ...) bakoitzarekin zenbat denbora igarotzen duen astean zehaztea eskatzen zaie gurasoei galdesorta betetzerakoan, eta zein hizkuntzatan egiten dion horietako bakoitzak haurrari. Informazio honek, haurrak hizkuntza bakoitzean zenbat entzuten duen kalkulatzea ahalbidetzen du.

Laia D ereduari dago eskolatuta, beraz eskolan euskaraz mintzatzen zaizkio irakasleak. Asteazken zehar egunean zazpi ordu ematen ditu amarekin eta lau ordu aitarekin. Asteburua bi gurasoekin igarotzen du. Esan bezala, gurasoak euskaraz mintzatzen zaizkio Laiari, baina kontuan hartu behar da ama, aita eta Laia daudenean, gurasoen arteko elkarrizketak gaztelaniaz entzuten dituela haurrak, eta hortaz, bi hizkuntza entzuten dituela, euskara eta gaztelania. Amonarekin astean 3tan 2 ordu egoten da haurra, gutxi gora behera, eta amona gaztelaniaz mintzatzen zaio haurrari. Datu bilketak iraun bitartean, aitarekin eta amarekin Laia egon den denbora ez da aldatu, baina haurraren amak esanda, amonarekin astean denbora gutxiago pasa du datu bilketaren erdialdetik amaierara.

Laiaren amak emandako informazioetan oinarrituta, Laiak hizkuntza bakoitzean ehunekoetan zenbat entzuten duen ondorioztatu daiteke. Laiak entzuten duenaren %75a euskaraz dela eta gainontzeko %25a gaztelaniaz dela iradokitzen digute haurraren amak emandako informazioek. Arestian aipatutako Barreña eta beste (2008) laneko euskaldun elebidunen sailkapenaren arabera, Laiak entzuten duenaren %75a euskarazkoa izanik, bigarren multzoan aurkitzen da, “euskara nagusidun elebidun” deiturikoen taldean (entzundakoaren %60tik %90era euskarazkoa dutenen taldean).

## **2.2. Tresna**

Batetik, *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda (KGNZ)* (Barreña eta beste, 2008) baliatu da euskarako datuak biltzeko eta datuak interpretatzeko. Bestetik, *Inventario de Desarrollo Comunicativo MacArthur* (Lopez-Ornat eta beste, 2005) baliatu da gaztelaniako datuak biltzeko eta interpretatzeko. Bi egokitzapen hauen jatorrizkoa ingelesez sortutako *MacArthur-Bates Communicative Development Inventories* (CDI) (Fenson, Dale, Reznick, Thal, Bates, Hartung, Pethick eta Reylli, 1993) tresna da.

Tresnak haurrak entzundako hizkuntzaren inguruko informazioa jasotzea ahalbidetzen du eta helburu nagusia haurren hizkuntza eta komunikazio garapen goiztiarra neurtzea da. CDIak hizkuntza bakoitzaren inguruko garapen linguistiko eta komunikatiboaren profila ematen digu eta haur bat dagokion adin ebolutiboan kokatzen du. Tresnak hizkuntzaren garapenean haurrak izan ditzakeen atzerapen edo arazoak identifikatzen lagundu dezake.

*MacArthur-Bates* tresna 64 hizkuntzetara egokituta dago, tartean euskarara eta gaztelaniara. Horrela, CDIak hizkuntzen artean konparaketak egitea ahalbidetzen du. Modu honetan, haurren elebitasun maila neurtzeko baliabideak eskaintzen ditu tresnak eta lan honetan modu honetan baliatu da tresna.

Tresna honetan haurren hizkuntza jabekuntza goiztiarraren inguruko datuak gurasoen informazioen bitartez eskuratzen dira. CDI tresnaren euskararako egokitzapena egin duten adituek diote 90eko hamarkadaren hasieratik gaur egun arte gurasoek betetako galdetegiaren erabilerak gero eta garrantzi handiagoa duela garapen goiztiarraren gaitasun komunikatibo eta linguistikoa neurtzerakoan. Modu honetan, ikerkuntza edo ebaluazio klinikoetako hizkuntza-lagin edo froga estrukturatuago eta estandarizatuagoen osagarri egokiak iruditzen zaizkie adituei gurasoen informazioak. KGNZren egileek dioskute gurasoen informazioak saio klinikoetan jasotzen diren informazioak bezain adierazgarriak izan daitezkeela, gurasoen informazioetan hurbileko datuak biltzen baitira.

*MacArthur-Bates* tresnaren euskararako egokitzapenak hiru galdesorta ditu, Lehen KGNZ, Bigarren KGNZ eta Hirugarren KGNZ. 8-50 hilabete bitarteko haurren datuak eskuratzea ahalbidetzen dute hiru galdesortek. Lehenengo galdesortak (*Hitzak eta Keinuak*) 8-15 hilabete bitarteko haurren hizkuntza garapen goiztiarraren berri ematen du, bigarren galdesortak (*Hitzak eta esaldiak*) 16-30 hilabete bitarteko haurrena eta hirugarren galdesortak 30-50 hilabete bitartekoena. Lan honetan bigarren eta hirugarren galdesortak baliatu dira datuak biltzeko.

Bigarren galdesorta (Bigarren KGNZ) bi atal nagusik osatzen dute. Lehenengo atalak informazio lexikoa jasotzen du (hitzei buruzko informazioa) eta bigarren atalak gramatika biltzen du (gramatika-markei eta esaldiei buruzko informazioa). Lehenengo atalak, *Haurrek esaten dituzten hitzak* atalak, bi azpiatal ditu. Lehenengo azpiatala *Ekoizten dituen hitzen zerrenda* da. Bigarren azpiatala *Haurrak hitzak nola erabiltzen dituen* da eta bertan iraganaz, etorkizunaz eta bertan ez dauden objektu eta pertsonen haurra nola aritzen den jakiteko galderak daude. Bigarren atala, *Esaldiak eta gramatika* deiturikoa, lau azpiataletan banatuta dago. Lehenengo azpiatala *Hitz amaierak* da eta plural, kasu eta aspektu marken ekoizpenaren berri ematen du. Bigarren azpiatala *Adizkiak* da eta oinarritzko aditz laguntzaileen eta aditz trinkoen ekoizpenaren berri

ematen du. Hirugarren azpiatala *Haurra hasita al dago hitzak lotzen?* izenekoa da eta laugarren azpiatala *Esaldien konplexutasuna* izenekoa. Azken azpiatal honetan garapen morfosintaktikoaren urrats garrantzitsuenak biltzen dira.

Laiaren euskarako datuak biltzeko Bigarren KGNZ baliatu da, azken datu bilketan izan ezik, non Hirugarren KGNZ baliatu zen, *Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzen 30-50 hilabete bitartean: MacArthur-Bates CDI-III tresnaren euskal bertsioa* (Barreña eta beste, 2013). Egokitzapena *MacArthur-Bates Communicative Development Inventories: Level III* (CDI-III)-rena da. Galdesorta hau 30-50 hilabete bitarteko haurren hizkuntza garapen goiztiarraren berri emateko prestatuta dago. CDI-a 64 hizkuntzetara egokitu bada ere, CDI-IIIa hizkuntza gutxi batzuetara besterik ez dago egokituta. Oraingoz, Erresuma Batuko ingelesera (Oliver eta beste, 2002) eta euskarara egokitu da, eta Mexikoko gaztelaniara (Jackson-Maldonado, 2011) eta suedierara (Eriksson, 2011) egokitzen ari dira.

CDI-IIIren euskararako egokitzapenak, oro har, jatorrizko bertsioaren egiturari jarraitzen dio. Hala ere, euskal morfologia ingelesekoa baino konplexuagoa denez, item kopuru gehiago ditu euskararako egokitzapenak morfologia itemen eta konplexutasun gramatikaren ataletan (Barreña eta beste, 2013). Honako atal hauek ditu KGNZ-IIIk: *Hitz zerrenda, Hitz-amaierak, Adizkiak, Hitzak lotzen, Esaldien adibideak, Egiturak eta Esaldien erabilera*.

*MacArthur-Bates* tresnaren gaztelaniarako egokitzapenak bi galdesorta ditu, lehena eta bigarrena, baina ez du CDI-IIIren egokitzapenik. Lehenengo galdesortak 8-16 hilabete bitarteko haurren hizkuntzazko datuak eskuratzea ahalbidetzen du eta bigarren galdesortak 16-30 hilabete bitarteko haurrena. Lan honetan gaztelaniako bigarren galdesorta baliatu da eta hiru atal ditu: *bokalizazioak, hitzak eta gramatika*.

Lehenengo atalak *Vocalizaciones* atalak, azpiatal bakarra du. Atal hau berria da *MacArthur-Bates* inbentarioen artean, gaztelaniarako egokitzapenean agertzen baita atal hau lehenengo aldiz. Bigarren atalak, *Palabras* atalak, hiru azpiatal ditu. Lehenengo azpiatala *Desarrollo del vocabulario* izenekoa da eta bertan haurraren lexikoaren bilakaeraren berri ematen da. Bigarren azpiatala *Vocabulario* izenekoa da eta haurrak esaten dituen hitz zerrenda baten berri ematen du. Hirugarren azpiatala *Usos del lenguaje* izenekoa da eta hizkuntzaren erabileraren berri ematea du helburu.

Gaztelararako egokitzapeneko bigarren galdesortako hirugarren atala *Gramática* deitzen da eta bost azpiatalez osatuta dago. Lehenengo azpiatala *Terminaciones de las palabras* deiturikoa da eta bertan morfologia nominalaren ebaluatzea eramaten da aurrera. Bigarren azpiatala *Verbos difíciles* deiturikoa da eta azpiatal honetan aditz irregularrak dira aztergai daudenak. Hirugarren azpiatala *Palabras sorprendentes* izenekoa da eta bertan erregela morfosintaktikoen orokortzeak dira hizpide daudenak. Laugarren azpiatala *Combinación de palabras* izenekoa da eta hurrek elkartzen dituzten lehenengo hitzen inguruko informazioa biltzen da atal honetan. Azken azpiatalean, *Complejidad morfosintáctica* deiturikoan, garapen morfosintaktikoaren inguruko informazioa biltzen da.

Euskararako egokitzapena (Lehenengo KGNZ eta Bigarren KGNZ) burutzeko 1.417 subjekturen datuak eskuratu zituzten. Lehenengo galdesorta 442 hurren gurasoek bete zuten eta bigarren galdesorta 975 hurren gurasoek. KGNZ-III burutzeko 1.024 subjekturen datuak eskuratu zituzten.

Gaztelaniarako egokitzapena burutzeko 1.005 subjekturen datuak eskuratu zituzten. Lehenengo galde sorta 412 hurren gurasoek bete zuten eta bigarren galde sorta 593 hurren gurasoek.

### **2.3. Datu-bilketaren antolaketa**

Lan honetan asmoa Laiaren hizkuntza jabekuntzaren garapena aztertzea denez eta Laia elebiduna denez, hizkuntza bakarra aztertuko balitz ez litzateke informazio guztia jasoko, hau da, Laiaren hizkuntza jabekuntzaren atal bat aztertu gabe geldituko litzateke. Hortaz, garrantzitsua da epe batez (lan honetan lau hilabetez) hizkuntza garapen osoa aztertzea, hots, euskarako eta gaztelaniako hizkuntza garapena aztertzea. Gainera, Laiaren hizkuntza jabekuntzaren garapena aztertzearekin, Laiaren elebitasuna datu-bilketa egindako epean nolakoa den ere jakin nahi da, kontuan hartu behar baita elebitasunaren garapen osoa, haurraren benetako hizkuntza jabekuntzaren ezagupenera heltzeko.

Laiaren hizkuntza garapenaren azterketan ez dira euskarako eta gaztelaniako egokitzapenetako atal guztiak baliatu. Honakoa da egindako analisia:

Lehenik, Bigarren KGNZko lehenengo ataleko lehenengo azpiatala eta gaztelaniako egokitzapeneko bigarren ataleko bigarren azpiatala aztertu dira, *Hitz zerrenda* eta *Vocabulario* azpiatalak zehazki. Modu honetan, haurrak hizkuntza bakoitzean duen hiztegiaren garapena neurtu nahi izan da. KGNZ-IIIko *Hitz zerrenda* atala ere baliatu da (azken datu-bilketan soilik).

Bigarrenik, Bigarren KGNZko lehenengo ataleko bigarren azpiatala eta gaztelaniako egokitzapeneko bigarren ataleko hirugarren azpiatala aztertu dira. *Haurrak hitzak nola erabiltzen dituen* eta *Usos del lenguaje* azpiatalak zehazki.

Hirugarrenik, Bigarren KGNZko bigarren ataleko lehenengo azpiatala eta gaztelaniako egokitzapeneko hirugarren ataleko lehenengo azpiatala aztertu dira, *Hitz amaierak* eta *Terminaciones de las palabras* azpiatalak. KGNZ-IIIko *Hitz amaierak* atala ere baliatu da (azken datu-bilketan soilik).

Laugarrenik, Bigarren KGNZko bigarren ataleko bigarren azpiatala eta gaztelaniako egokitzapeneko hirugarren ataleko bigarren azpiatala aztertu dira. *Adizkiak* eta *Verbos difíciles* azpiatalak zehazki. KGNZ-IIIko *Adizkiak* atala ere baliatu da (azken datu-bilketan soilik).

Bosgarrenik, Bigarren KGNZko bigarren ataleko laugarren azpiatala eta gaztelaniako egokitzapeneko hirugarren ataleko bosgarren atala aztertu dira, *Esaldien konplexutasuna* eta *Complejidad morfosintáctica* azpiatalak zehazki.

Atal hauetaz gain KGNZ-IIIko *Egiturak eta Esaldien erabilera* atalak ere baliatu dira.

Aipaturiko atal guztiek ez dute gauza bera neurtzen. Lexikoa eta gramatika aztertu dira, Barreña eta beste (2008) lanean haur elebidunek entzuten duten hizkuntza bakoitzaren kantitateak lexikoan eta gramatikan eragina duela ikusten baita. Honela, galdesortetako hitz zerrenden bitartez haurrak esaten dituen hitzen berri jakin ahal izan da, hau da, lexikoa aztertu da. Gramatika aztertzeari dagokionean, izen-morfologia arakatu da *hitz-amaierak* atalaren bitartez eta aditz-morfologia *adizkiak* atalaren bitartez. *Esaldien konplexutasuna* atalarekin haurraren garapen morfosintaktikoaren berri eduki nahi izan da. *Haurrak hitzak nola erabiltzen dituen* atalaren bitartez haurrak



pasatutako gertakarien inguruan, geroaldiko gauzen inguruan edota aurrean ez dituen gauzen inguruan hitz egiten duen neurtu nahi izan da.

Laiaren hizkuntzazko datuak euskararako egokitzapeneko eta gaztelaniarako egokitzapeneko eskuliburuetakoko milatik gora haurren datuen gainean kalkulaturako pertzentilekin erkatu dira, Laiaren garapen ebolutiboa gainerako haurrenekin alderatuz nolakoa den ikusteko. Honekin batera, bi hizkuntzetako datuak erkatu dira, zein hizkuntzetan duen garapen gehiago ikusteko asmoarekin, honela, entzundakoaren inputak eragina duen ikusi ahal izateko. Datuak interpretatzeko eskuliburuetakoko ereduak jarraitu zaie eta emaitzetan ikusiko den bezala kopuruei erreparatu zaie azterketa honetan, atal bakoitzean egiten edo esaten dituen item kopuruei.

Datu bilketaren prozedurari dagokionean, haurraren gurasoekin harremanetan jarri eta proiektuaren berri eman ondoren, gurasoek baiezkota eman zuten. Era honetan, baimena eskuratzeari ekin zitzaion lanari ekin baino lehenago, haurra adin txikikoa izanik haurraren eskubideak eta anonimosotasuna gordetzeko. Hasiera batean, datu-bilketa egiterakoan bi pertsona ezberdinek beteko zituztela galdesortak erabaki zen, amak euskarako galdesorta eta amonak gaztelaniako galdesorta. Haurraren amarekin batera egutegi antolaketa bat egitea adostu zen galdesortak betetzeko bi astez behin geratzeko asmoarekin. Inkestak haurraren amak edo amonak bakarrik ez betetzea erabaki zen, edozein zalantza momentuan azaldua izan zedin eta datuak biltzerakoan arazoak saihestu zitezela.

Asmoa galdesortak Laiaren amak eta amonak betetzea bazen ere, azkenean amak bete behar izan zituen bai euskarako eta bai gaztelaniako galdesortak ere. Ez da posible izan haurraren amonak galdesortak betetzea. Laiaren amarekin datu bilketa bi astez behin egitea adostu bazen ere, ez zen beti posible izan. Guztira 8 saio burutu ziren, hona hemen xehetasun gehixeago:

Lehenengo datu bilketa 2016ko azaroko laugarren astean egitea aurreikusi zen eta hala egin zen, baina euskarako datuak bakarrik bildu ziren.

Bigarren datu bilketa 2016ko abenduko bigarren astean egitea aurreikusi zen eta hala egin zen. Euskarako zein gaztelaniako datuak bildu ziren.

Hirugarren datu bilketa 2016ko abenduko laugarren astean egitea aurreikusi zen eta hala izan zen. Euskarako zein gaztelaniako datuak bildu ziren.

Laugarren datu bilketa 2017ko urtarrileko bigarren astean egitea aurreikusi zen eta hala egin zen, baina gaztelaniako datuak bakarrik bildu ziren.

Bosgarren datu bilketa 2017ko urtarrileko laugarren astean egitea aurreikusi zen eta ez zen hala izan. Otsaileko lehenengo astean burutu zen bosgarren datu-bilketa. Euskarako zein gaztelaniako datuak bildu ziren.

Seigarren datu bilketa 2017ko otsaileko bigarren astean egitea aurreikusten zen, baina bosgarren datu bilketa otsaileko lehenengo astean egin zenez, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren datu bilketak astebete atzeratu ziren. Horrela, seigarren datu bilketa otsaileko hirugarren astean burutu zen eta euskarako zein gaztelaniako datuak bildu ziren.

Zazpigarren datu bilketa 2017ko otsaileko laugarren astean egitea aurreikusten bazen ere, aurretik azaldutakoagatik astebete beranduago burutu zen, martxoko lehenengo astean zehazki. Euskarako eta gaztelaniako datuak bildu ziren.

Zortzigarren datu bilketa 2017ko martxoko bigarren astean egitea aurreikusten bazen ere, martxoko hirugarren astean burutu zen azkenik. Datu-bilketa honetan euskarako datuak bakarrik bildu ziren, eta *MacArthur-Bates* tresnaren euskararako egokitzapeneko *Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda III* galdesorta erabili zen, aurrekoetan ez bezala (Bigarren KGNZ erabili baitzen).

#### **2.4. Aurreikuspenak**

Haurrak entzuten dituen hizkuntzek eragina dute bere hizkuntza jabekuntza goiztiarraren garapenean, eta, hortaz, haurrak gehiago entzuten duen hizkuntzan garapen goiztiarra erakutsiko duela pentsatzen da. Laiak entzuten duenaren %75 inguru euskaraz dela eta %25 inguru gaztelera dela ondorioztatu daiteke Laiaren amak emandako informazioetan oinarrituta.

Barreña eta beste (2008) lanean gaztelania nagusi duten elebidunek euskara nagusi dutenek eta euskaldun elebakarrak direnek baino emaitza apalagoak erakusten dituzte euskararen jabekuntzari dagokionean. Lan berean, euskaldun elebakarren eta

euskara nagusi duten elebidunen artean ez da alde esanguratsurik topatzen. Beraz, honetan oinarrituta, euskaraz euskaldun elebatarren parean egongo dela, eta bestalde, gazteleraz gazteleradun elebatarrek baino emaitza apalagoak izango dituela aurreikusi zitekeen. Hau da, entzundako hizkuntzen kantitatea aintzat hartuta, Laia 31-35 hilabeterekin adinkide dituen euskaldun elebatarren parean egotea, eta erdaldun elebatarren alboan emaitza apalagoak erakustea espero da. Aipatutakoa aurreikuspen orokorra izanik, atalkako aurreikuspenak azalduko dira jarraian. Laiak atal bakoitzean eskuratuko duen pertzentilaren (eta hortaz atal bakoitzean ekoiziko dituen item kopuruaren) aurreikuspena emango da.

Bigarren KGNZri eta gaztelaniako galdesortari erreparatu, Laiaren adinkideen datuak aintzat hartuta, euskaraz 40-80 bitarteko pertzentila eta gaztelaniaz 30-50 bitarteko pertzentila erakustea espero da. Honela, *Hitz zerrenda* atalean euskaraz 409-558 hitz inguru eta gaztelaniaz 303-400 hitz inguru ekoiztea aurreikusten da. *Haurrak hitzak nola ekoizten dituen* atalean euskaraz 5 item ekoiztea eta gazteleraz 3-4 item ekoiztea aurreikusten da. *Hitz amaierak* atalean euskaraz 5-8 hitz amaiera inguru eta gaztelaniaz 10-13 hitz amaiera inguru ekoiztea aurreikusten da. *Adizkiak* atalean euskaraz 6-19 adizki inguru eta gaztelaniaz 6-8 adizki inguru ekoiztea aurreikusten da. *Esaldien konplexutasuna* atalean euskaraz 18-31 item inguru ekoiztea eta gazteleraz 39-59 puntu inguru izatea aurreikusten da.

KGNZ-IIIko galdesortari erreparatu, Laiaren 35 hilabeteko datuak eskuliburuko 35 hilabeteko hurren datuekin alderatuta, 40-80 bitarteko pertzentila erakustea aurreikusten da. Honela, *Hitz zerrenda* atalean 72-103 hitz inguru ekoiztea, *Hitz amaierak* atalean 10-15 hitz amaiera ekoiztea, *Adizkiak* atalean 9-16 adizki inguru ekoiztea, *Egiturak* atalean 8-18 esaldi inguru ekoiztea eta *Esaldien erabilera* atalean 5-8 item ekoiztea aurreikusten da.

### **3. Emaitzak**


#### **3.1. *Hitz zerrenda eta Vocabulario* azpiatala:**

Azpiatal honetan hiztegiaren garapena neurtzeko hitz zerrenda baliatuz haurrak euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten dituen hitz kopuruak jasotzen dira.

Gurasoek bete beharreko euskararako egokitzapeneko galdesortak azpiatal honi 654 hitz eskaintzen dizkio. Honela, 654 hitzetatik gurasoek euren haurrek esaten dituztenak markatu behar dituzte. Haurrak hitzen bat horrela edo beste era batera esaten badu (adibidez, “pilota” esan beharrean “piota” esaten badu) markatzeko eskatzen zaie gurasoei. KGNZ-IIIk *Hitz zerrenda* atalean 120 item ditu eta galdesortan haurrak esaten dituen hitzak markatu behar dituzte gurasoek. Gaztelarako egokitzapenak *Vocabulario* azpiatalean 588 item ditu. Laiaren amari Laiak esaten dituen hitzak markatzeko eskatu zitzaion.

Hitzen ekoizpenaren garapena etengabea da haurrengan. Euskaradun 16 hilabeteko haurren ekoizpena 20 hitzekoa da batz bestea, 20 hilabeteko haurrena 100ekoa, 27 hilabeteko haurrena 300 hitzekoa eta 30 hilabetekoena 400 hitzetara iristen da (Barreña eta beste, 2008). Lehenengo grafikoan Laiaren hitzen ekoizpenaren garapena etengabea dela ikusi dezakegu, bai euskaraz eta baita gaztelanian ere. Adinak gora egin ahala hitz kopuru gehiago ekoizten dituzte haurrek.

Lehenengo grafikoan KGNZ-II eta gaztelaniako egokitzapenaren bitartez eskuratutako datuak ikusi daitezke. KGNZ-IIIko datuak ez daude grafikoan islatuta.



Grafikoa interpretatzerakoan kontuan hartu behar da euskarako galdesortak eta gaztelaniako galdesortak ez dutela hitz kopuru bera. Euskarako galdesortak 654 hitz dituen bitartean gaztelaniakoak 588 hitz baititu.

Laiak 31 hilabeterekin euskaraz gazteleraz baino 295 hitz gehiago ekoizten ditu eta 35 hilabeterekin 357 hitz gehiago. Lehenengo grafikoak erakusten duen bezala, Laiaren hitzen ekoizpena etengabea da bai euskarari eta baita gaztelan ere. Hala ere, 31-35 hilabete bitartean euskaraz ekoiztutako hitzen kopurua gaztelaniaz ekoiztutakoena baino dezente handiagoa da.

Gaztelaniako egokitzapeneko egileen arabera gazteleradun haurrak 16-17 hilabete tartean hasten dira hitzak ekoizten eta ez dute 200 hitzen ekoizpena gainditzen (López-Ornat eta beste, 2005). Laiak 34 hilabeterekin gaztelaniako galdesortako 223 hitz ekoizten ditu, 16-17 hilabeteko gaztelaniadun elebakarren parean jartzen delarik 34 hilabeterekin.

Euskarako datuak euskarako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuta, 31 hilabeterekin 35eko pertzentila erakusten du eta 35 hilabeterekin 99ko pertzentila.

KGNZ-III galdesortako 120 hitzetatik 85 hitz ekoizten ditu Laiak 35 hilabeterekin. Datu hauen arabera 55eko pertzentila erakusten du Laiak.


Gaztelaniako datuak gaztelaniako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuta, 32 hilabeterekin 5eko pertzentila erakusten du eta 35 hilabeterekin 25eko pertzentila.

Beraz, emaitzak aintzat hartuta azpiatal honetan Laia ez da orekatua bi hizkuntzei dagokienean. Euskarari gaztelan baino garapen goiztiarragoa erakusten du azpiatal honi dagokionean. Euskarako datu normatiboek euskaldun elebakarren pare jartzen dute Laia, baina gaztelaniako datuek Laiak gazteleradun elebakarrek baino garapen motelagoa duela erakusten dute.

### **3.2. *Haurrak hitzak nola ekoizten dituen eta Usos del lenguaje azpiatala:***

Azpiatal honetan hizkuntzaren erabileraren inguruko informazioa biltzen da, etorkizunaz eta bertan ez dauden objektu eta pertsonen aritzeko haurrak dituen joerak biltzen dira.

Euskararako egokitzapenak azpiatal honetan 5 item ditu eta gaztelaniako egokitzapenak 4 item. Gurasoei haurrak item bakoitza oraindik ez duen egiten, batzuetan egiten duen ala sarritan egiten duen markatzeko eskatzen zaie. Bigarren grafikoan KGNZ-IIren eta gaztelaniako egokitzapenaren bitartez eskuratutako datuak daude islatua. KGNZ-IIIko datuak ez daude islatuta grafikoan. Bertan Laiak euskaraz eta gaztelaniaz hitzak nola erabiltzen dituen ikusi daiteke.



Laiak euskaraz 31 hilabeterekin 3 item baliatzen ditu eta 32-35 hilabete bitartean 5 item. Gaztelaniaz 4 item baliatzen ditu 32-35 hilabete bitartean.

Euskararako egokitzapeneko egileen arabera 17 hilabete bete arte azpiatal honetako 5 aukeretatik 2 egiten dituzte haur euskaldunek, 23 hilabeterekin 4 ekoizten dituzte eta 30 hilabeterekin 5 item. Gaztelaniako egokitzapeneko egileen arabera 30 hilabeterekin mediana 3,7koa (4tik) da.


Beraz, azpiatal honetan Laia orekatua da, bi hizkuntzetan garapen bera erakusten baitu, item kopuru guztiak ekoizten ditu bi hizkuntzetako galdesortetan. Haurren datuak “datu normatibo”ekin alderatuta, euskaradun zein gaztelaniadun haurren pare dago Laia azpiatal honi dagokionean.

### 3.3. *Hitz amaierak eta Terminaciones de las palabras azpiatala:*

Azpiatal honetan, gramatika-marken ekoizpena biltzen da. Euskarari dagokionean, atzizki hauen ekoizpena arakutzen da: pluralarena (-*k*), ergatiboarena (-*k*), genitiboarena (-*aren*), toki-genitiboarena (-*ko*), datiboarena (-*ari*), partizipioarena (-*ta*) eta aditz-aspektuena (-*tzen* eta -*ko*). Euskararako galdesortak azpiatal honetan 9 item ditu eta gurasoek hurrek esaten dituztenak markatu behar dituzte. Oraindik ez duten egiten, batzuetan egiten duten ala sarritan egiten duten markatu behar dute.

Gaztelaniari dagokionean, galdesortak 17 item ditu azpiatal honetan. Morfema flexiboen, nominalen (generoa eta numeroa) eta aditzezkoen inguruan galdetzen zaie gurasoei. Gurasoek hurrak oraindik ez duen horrelakorik ekoizten, batzuetan ekoizten duen ala sarritan ekoizten duen markatu behar dute item bakoitzarentzat.

Hirugarren grafikoan Laiak euskaraz eta gaztelaniaz hitz amaierak nola egiten dituen ikusi daiteke eta KGNZ-II eta gaztelaniako galdesortaren bitartez eskuratutako emaitzak daude islatuta bertan.



Hirugarren grafikoak Laiaren euskararen eta gaztelaniaren morfologiaren garapena mailakatua eta etengabea dela erakusten du.

Hirugarren grafikoa interpretatzerakoan kontuan hartu behar da euskarako galdesortak 9 hitz-amaiera eta gaztelaniako galde sortak 17 hitz-amaiera dituela. Hau da, bi hizkuntzen arteko tartea grafikoa erakusten duena baino handiagoa dela pentsatu behar da. Izan ere, grafikoari erreparatuta, badirudi 35 hilabeterekin euskaraz eta gaztelaniaz antzera egiten duela, baina ez da horrela. Euskaraz 9 hitz-amaieretatik 9 ekoizten dituen bitartean, gaztelaniaz 17 hitz-amaieretatik 8 ekoizten ditu.

Euskarako egokitzapeneko Bigarren KGNZko haurren datuetan lehenengo morfologia markak 19. hilabetetik aurrera agertzen dira eta 23. hilabetetik aurrerako haurrek bataz beste zerrendako 2 atzizki baino gehiago ekoizten dituzte. 26 hilabetetik aurrerako haurrek bikoiztu egiten dute ekoizpena, lau atzizkitara iristen direlarik (Barreña eta beste, 2008).

Laiaren euskarako datuak euskarako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuta, Laiak euskaraz 31 hilabeterekin 55eko pertzentila erakusten du eta 35 hilabeterekin 90eko pertzentila.

KGNZ-IIIko galdesortari erreparatuz, *Hitz amaierak* ataleko 16 itemetatik 14 item ekoizten ditu Laiak 35 hilabeterekin. “Datu normatibo”ekin alderatuta 70eko pertzentila erakusten du haurrak.

Laiaren gaztelaniako datuak gaztelaniako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuta, 32 hilabeterekin 10eko pertzentila eta 35 hilabeterekin 20ko pertentila erakusten du haurrak.

Beraz, emaitzak kontuan hartuta azpiatal honetan Laia ez da orekatua bi hizkuntzei dagokienean. Euskaraz gaztelanian baino garapen goiztiarra erakusten du. Euskarako “datu normatibo”ek euskaldun elebazarren pare jartzen dute Laia, baina gaztelaniako datuek Laiak gaztelaradun elebazarrek baino garapen motelagoa duela erakusten dute, pertzentilei dagokienean medianatik oso behera geratzen baita.

### **3.4. Adizkiak eta *Verbos difíciles* azpiatala:**


Azpiatal honetan haurrak erabiltzen dituen adizkiak neurtzen dira. Haurrak erabiltzen dituen adizkien artean zenbat forma bereizten dituen neurtzen da.



Euskarazko galdetegian *nor*, *nor-nori*, *nor-nork* eta *nor-nori-nork* sistemetako 36 forma daude zerrendatuta, ustez erabilienak eta goiztiarrenak direnak (Barreña eta beste, 2008) eta gurasoei haurrak esaten dituenak markatzeko eskatzen zaie. Gaztelararako egokitzapenean 19 forma daude eta bertan ere gurasoei esaten dituztenak markatzeko eskatzen zaie. KGNZ-III-k 20 adizki ditu azpiatal honetan.

Euskararako egokitzapeneko datuek 23 hilabete bete arte adizkien ekoizpena oso urria dela erakusten dute. Hala ere, garapena etengabea da 24 hilabete bete eta gero: 25 hilabeteko haurrek 4 adizkitik gora ekoizten dituzte batz bestea, 27 hilabetekoek 6 baino gehiago eta 28 hilabetetik gorakoek 10 adizkiren ekoizpena gainditzen dute (Barreña eta beste, 2008).

Laugarren grafikoa KGNZ-II eta gaztelaniako egokitzapenaren bitartez eskuratutako datuak daude islatuta eta bertan Laiak euskaraz eta gaztelaniaz adizkiak nola egiten dituen ikusi daiteke.



Laugarren grafikoa interpretatzerakoan kontuan hartu behar da euskarako galde-sortak 36 adizki dituela eta gaztelarako galde-sortak 19 adizki dituela. Grafikoa ikusten den moduan, bi hizkuntzen arteko aldea handia da azpiatal honetan. Euskaraz 31 hilabeterekin 36 adizkitatik 15 ekoizten dituen bitartean (erdiak baino zer edo zer

gutxiago) gaztelaniaz ez du bat bera ere ekoizten 32 hilabeterekin. 35 hilabeterekin euskaraz 35 adizki ekoizten dituen bitartean (36 adizkitatik), gaztelaniaz 7 ekoizten ditu (19tik, hau da, erdia ere ez).

Euskarako datuak euskarako egokitzapeneko “datu normatibo”ekin alderatuta Laiak 31 hilabeterekin 70eko pertzentila erakusten du eta 35 hilabeterekin 99ko pertzentila.

